

## Kapituluaaren gida didaktikoa

# Konposizioaren artea

Lehen argazkilariak, gehienak, margolariak ziren. Euren ustez, argazki kamera objektuen perspektiba doi-doi jasotzeko aukera eskaini beharko zukeen kaxa ilun garatua zen. Horren froga argia izan ziren garaiko bodegoi eta natura hilen irudiak. Bideoan, urratsez urrats, adibide praktikoen bidez, argazkia egituratzerakoan kontuan hartu behar diren kontzeptuak azaltzen dira.

Lantegia atalean, gai baten gainean lan egitea proposatzen da.

02:42– Argazkilaritza eta artea. (SARRERA).

## Konposizioaren artea

05:49- Perspektiba

– Airetiko perspektiba

09:19- Interesgunea

-Perspektibaz baliatuz

-Fokatzeko hautakorra

-Esposizioa eta argiztapena

12:58 - Giroa

14:57 - Gaiak

16:18 – Leihoak

17:54 - LANTEGIA: Argazki seriea

## *LANTEGIA: Argazki seriea*

Lantegia atala ikusi eta gero, ikasleak taldetan banatuko ditugu. Jarraian, talde bakoitzak argazki seriearen gaia aukeratuko du eta lana egiteko egitasmoa erabakiko. Egitasmoa burutu ostean, ez lehenago, emango zaie materiala seriea egiteko.

Erabiliko dugun materiala:

Argazki kamera eta objektiboak

Argazki erroiluak

Tripodea eta kliska egiteko kablea

## *ARGAZKILARITZAREN HISTORIA*

Bideo bakoitzaren sarreran argazkilaritzaren munduan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia osatzeko, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakarien koadroa erabat osatua izango dugu.

Argazkilaritza eta artea:

.- 1840an, paperezko bikoizketen erabilera hedatu zen.

.- 1900ean, “argazkilaritza artistikoa” kontzeptua agertu zen.

.- 1902an “Photo-Secession” izeneko taldea sortu zen.

.- 1920an, irudiak eskuz konposatzen hasi ziren.

**Giroa.** Argazkian jasotzen diren eta giro jakina ordezkatzeko edo ordezkatzeko ahalbidetzen duten elementuak.

**Interesgunea.** Argazkiak azpimarratu nahi duen gunea edo egoera nagusia.

**Airetiko perspektiba.** Paisaiak begiratzerakoan suma daitekeen efektua Efektu horren eraginez, gertuen dauden elementuak urrutien daudenak baino ilunagoak eta kontrastatuak ikusten dira.

**Argazkiaren gaia.** Argazki serieari eman nahi zaion adiera. Horretarako, izaera fisikoa edo soziologikoa daukaten elementu multzoak, behin eta berriro, errepikatzen dira.

## 7. kapituluko hiztegia

### LIBURUAK

**La fotografía paso a paso.** Michel Langford.  
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik  
osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía.** W. Kruyt.  
**Retrato creativo.** P. Zeemeijer.  
**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.  
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira.  
Euretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

ekoizlea:

**iadi**

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

2002-11-28